

IRAKASLEENTZAKO ESKULIBURUA EZAGUTU NAFARROAKO MEATZARITZA

LEHEN
HEZKUNTZA

MINERÉTICA

Meatzaritzari eta mineralei buruzko jakintza hedatzeko ekimena.

Nafarroako meatzaritzari buruzko informazio gehiagorako:
mineria.navarra.es

Unitate didaktiko hau Galiziako Meatzaritza Ganberak sortutako materialetan oinarritzen da



ZER DA MINERETICA?

Meatzaritza eta mineralei buruzko jakintza hedatzeko ekimen bat da. Horretan elkarrekin egiten dute lan, alde batetik, Nafarroako Gobernuak Industriaren, Energiaren eta S3 Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiak eta, beste aldetik, Nafarroako meatzaritzako sektoreak. Honako hauek ordezkatzen dute meatzaritzako sektorea: **AEMINA** (Nafarroako Meatzaritzako Enpresa Elkarte), Nafarroako **AFARIME** (Agregakinen Fabrikatzaileen eta Meatzeetako Erauzketaren Industriaren Elkarte) eta arloko enpresa nagusiak.

MINERETICAren helburua da meatzaritzako sektoreak gizartearen duen eginkizuna hedatzeko ekintzak gauzatzea, baliabide mineralak eguneroko bizitzan erabiltzen direla aditzera ematea, horretaz kontzientziatu eta sentsibilizatzea herritarrak, eta erauzketa enpresen onarpena eta haiekiko konfiantza areagotzea, baita horiek etorkizun jasangarriaren duten garrantzia erakustea ere.

SEKTORE ESTRATEGIKOA

Baliabide geologikoak dira lurretik zuzenean erauzten diren ondasun natural guztiak. Jabari publikoko materialak ditugu, gure aberastasunaren zati direnak, eta lehengai erabilienak dira industriaren zati handienean, energiaren ekoizpenean eta eraikuntzan.

Nafarroako meatzaritzak modu **ARRAZOIZKOAN, ORDENATUAN ETA ERAGINKORREAN** ustiari behar dituzten baliabideak, ingurumenari ahalik eta inpaktu txikiena eragiteko. Askotan, baliabideen ikerketa eta ustiapena onura publikokotzat jotzen dira, eragin handia baitute enplegu sorreran eta jarduera ekonomikoan. Ekimen pribatuak gauzatzen ditu jarduera horiek, emakiden edo baimenen bidez eta Administrazioaren ikuskeraren eta kontrol zorrotzen pean.



HARTZAILEAK



Jardueren hartzaileak Lehen Hezkuntzako azken bi zikloetako ikasleak dira, hau da, 3. mailatik 6.era artekoak.

UNITATE DIDAKTIKOAREN DESKRIBAPENA



Meatzaritza sektore estrategiko bat da gure ekonomiarentzat, baina herritarrek neurri txikian ezagutzen dute. Horregatik, material didaktiko honen bidez, meatzaritzako sektoreari buruzko irudi errealista bat eman da, eta jarduerak eta edukiek mutilei eta neskei lagunduko diete meatzaritzaren gainean duten ikuspegi akademikoa osatzen.

Horrela, ikasleek aukera izanen dute meatzaritza arloa ezagutzeko: jakinen dute zer diren mineralak eta meatzeak, zer makineria erabiltzen den lan egiteko, eta zein diren beren eguneroko bizitzan erabiltzen dituzten eta meatzeetatik datozen produktu guztiak.

HELBURU DIDAKTIKOAK



- Ikasleei azaltzea zer den meatzaritza, halako moduan non osatuko baita mutilek eta neskek meatzaritzaren gainean duten ikuspegi akademikoa.
- Deskribatzea nola funtzionatzen duten meatzaritzako zikloak eta mineralak erauzteko prozesuak.
- Nabarmentzea meatzaritzako produktuen erabilgarritasuna eta horien aplikazioak pertsonen eguneroko bizitzan.
- Aditzera ematea zer garrantzitsua den meatzaritza Nafarroako industriaren barnean.